



Erabakia mantenduz gero, Udalarekin harremanak apurtu behar izango dituela adierazi du Arabako Enpresariak erakundearen lehendakariak.

ARABAKO ALEA

Arabako patronala kexu eta mehatxuka, Gasteizko zerga igoera dela-eta

Arabako Alea

@ArabakoALEA

SEA Arabako enpresariak erakundeak gogor kritikatu du Gasteizko Udalak Ekonomia Jardueraren Zerga (EJZ) %1,93 igotzeko hartu duen erabakia. Arabako Enpresariak erakundearen lehendakari Pascal Gomezek egindako agerraldian Udalarekin harremanak apurtzeko mehatxua egin du, 2015ean EAJ, PP eta PSE udal taldeekin sinatu zuen akordioa betetzen ez bada.

Akordio horrek 2015-2016-2017 hirurtekoan EJZ-ren koefizientearen zenbatekoa zehazten zuen eta orain Udalak onartu duen hitzarmena "gure erakundearen kaudimena eta sinesgarritasun ekonomikoaren aurkako eraso" dela uste du SEAk.

Pasa den urriaren 28an Udal Gobernuak EH Bildu eta Irabazirekin adostu zuen moduan, hurrengo ekitaldian milioi bat eurotik gora fakturatzeko erabakia erabaki behar izango dute zerga hau; orain arte, fakturazio-muga bi milioi eurotan zegoen. Horrez gain, zerga kalkulatzeko koefizientea igoeraz adostu dute; 1,14tik 1,93ra.

Neurri horren eraginez, "500 lanpostu galduko dira eta 3.000 enpresari eragingo die", ohartarazi du Gomezek. Aurretik adostutako akordioa bete ezean, Udalarekin harremanak apurtu behar izango dituela adierazi du Arabako Enpresariak erakundearen lehendakariak.

Gehien duenak gehiago ordaintzea

Udal Gobernuaren irakurketaren arabera, ordea, neurri horri esker, 2017 urtean 5 milioi euro gehiago bilduko ditu Udalak eta aldaketa, guztira, 800 enpresari eragingo dio. Zehazki, EH Bilduk eta Irabazik aurkeztu zuten zuzenketa da, eta EAJ eta PSE-EEren babesarekin eta Podemosen abstentzioarekin aurrera atera zena. "Akordio honekin, guztiaren gainetik herritarren interesa jartzen dugu, udal kutxei eragiten dien 20 milioi euroko egiturazko defizita zuzentzeko neurriak eskatzen baitizkigute", adierazi zuen urriaren 28an Ogasuneko zinegotzi Itziar Gonzalok. Aldi berean, EH Bilduko bozeramaile Miren Larrionek azpimarratu zuenez, "gehien duenak gehiago ordainduko du".

EKONOMIAREN TALAIAN

Europako lan legedia bete



Juan Mari Arregi

Legearen defendatzaile diren ohiko gobernuek, izan estatalak izan autonomikoak, euren legeak betetzen ez direnean oihu egin eta hura hautsi duten herritarrak zigortu edo espetxeratzen dituzte. Patronalak gauza bera. Baina gobernu eta administrazioarekin horiek, aitzakiak eta zirrikituak bilatzen dituzte euren eragiten dieten legeak ez betetzeko. Europako lan legediak behin-behineko langileen inguruan esandakoa da horren adibide. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiren epai batek erabaki berri du lan baldintzak berdinak izan behar direla, kontratu mota dena dela ere, eta indemnizazio bera jasotzeko eskubidea dutela. Europar auzitegiak, ondorioz, behin-behineko eta behin betiko kontratuak berdindu egin ditu.

Legedi hori enpresa pribatuan eta publikoan ezarri behar da. Eta badakigu administrazio publikoan -Euskal Herrikoan ere bai- behin-behineko eta bitarteko langile asko dagoela: %4 izan daitekeela uste da, batez ere Osakidetzan eta hezkuntzan. Egia da zenbait kasutan behin-behinekotasuna ezin dela saihestu, baja edo oporrenatik sortzen diren ordezkapenak direlako. Baina bistakoa da administrazioak egiturazko postu asko ere -iraunkorrek izan behar luketenak- betetzen dituela aldi baterako kontratazioarekin.

Normala eta bidezkoa da behin-behineko eta bitarteko langileek, enpresa publiko nahiz pribatukoek, europar legedia bete dadila eskatzea. Beraien eskubidea da. Administrazio publikoek, legedia aplikatzeaz gain, etorkizuneko enplegu publikoa proiektatzerakoan kontuan eduki behar dute hori. Behin-behineko kontratazioak amaitu behar dira. Kalitatezko enplegua, hauteskunde kanpainen denen ahotan egon dena, hori ere bada.